



Zuzia

HATZRESIA APUTZITUZ, BIDEA ZABALDUZ

6. zenbakia.

2022ko martxoa.

BERRIAK



APIRILAREN 17AN ABERRI EGUNA GERNIKAN

JARDUN koordinadorak martxoaren 10ean goizean Gernikan burututako prentsaurrekoan, apirilaren 17an Aberri Eguna bertan burutuko zuela iragarri zuen. Koordinadoraren iritziz, asko dira Euskal...

[Edonon sakatu](#)

MARTXOAREN 3A OROIMENA GARA, BORROKAREN PARTE DIRA



Martxoaren 3a euskal herritarrok oroimenean iltzaturik daukagun data da. Urtero, gogoan ditugu polizia frankistak eraildako aurpegiak, zerua zeharkatzen zuten ke-poteen irudiak, barrikada eta...

[Edonon sakatu](#)

MARTXOAREN 3KO BIZIPENAK



Gasteiztarra jaiotzez, **Amparo Lasheras**ek hiru hamarkada luze daramatza kazetari eta idazle lanetan. Arlo politikoan ere aski ezaguna da Amparoren jarduna. Ezker Abertzaleko kide, D3M plataformako zerrendaburu gisa aurkeztu...

[Edonon sakatu](#)

FORMAKUNTZA




FAMILIAREN PAPERA GIZARTEAN

FAMILIAZ

Gure bizitzako lehenengo momentutik ikasten dugu zer den familia...

[Edonon sakatu](#)

HAUSNARKETA




DONBASSEN EGOERAZ

Egunotan nazioarteko hedabide guztiek Ukrainara begira gaituzten honetan, otsailaren 24ko goizetik jazotzen ari dena ulertzeko, egoera honetara heltzeko eman den jatorria analizatzera jo behar dugu. Kiev historiako lehen hiri errusiarra...

[Edonon sakatu](#)

ELKARRIZKETA



Alexis Castillo, Kolonbian jaioa, Murtzian bizi zen Ukrainiako gatazka hasi zenean. 26 urte zituela, Donbasseko eskualdera joan zen borrokatzera. Gauzak horrela,

[Edonon sakatu](#)



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com



Hasierara bueltatu



BERRIAK



APIRILAREN 17 AN ABERRI EGUNA GERNIKAN

JARDUN koordinadorak martxoaren 10ean goizean Gernikan burututako prentsaurrekoan, apirilaren 17an Aberri Eguna bertan burutuko zuela iragarri zuen. Koordinadorearen iritziz, asko dira Euskal Herriko langileiak pairatzen dituen zapalkuntzak eta, honen aurrean, Euskal Herri Langileak duen irtenbide bakarra apurketa da, espainiar eta frantziar estatu kapitalistek inposatutako markoezikiko eta instituzioekiko apurketa, hain zuzen ere. Burgesen aberastasuna handitzea ahalbidetzen duten bitartean, langileoi esplotazioa eta zapalkuntza betikotzea ahalbidetzen duten estatuak. Hori dela eta, Euskal Herrian prozesu iraultzailea martxan jartzeko beharrezko baldintzak sortzeko, luzera begirako perspektibapean eman beharreko ideologizazio eta erradikalizazio prozesu gradualearen baitan kokatzen dituzte Aberri Eguna bezalako datak JARDUN koordinadorak. Euskal Herriko langileon aktibazioa eta mobilizazioa sustatuta, hauek konfrontazio politikoaren parametroetan lerratzen joaterako bidean. Izan ere, apurketa politikoa, Euskal Herri Langileak zainpatuta mantentzen duten inposatutako instituzio burgesekiko izaera integraleko alternatibaren osaketaren eskutik etorriko da.



"Burgesen aberastasuna handitzea ahalbidetzen duten bitartean, langileoi esplotazioa eta zapalkuntza betikotzea ahalbidetzen duten estatuak. "

Bide horretan, bai klase, bai nazio parametroetan Euskal Herri Langileak pairatzen dituen zapalketei aurre egiteko alternatiba bakarra independentzia eta sozialismoan kokatzen du koordinadorak. Euskal Herria oraindik ere Frantziako eta Espainiako estatuen menpe dagoen nazioa da, Euskal Herri Langilearen nazio auzia klase gatazkaren baitan ulertu beharra dagoelarik, nahitaez. Izan ere, Euskal Herria izaera geografiko, linguistiko eta etnikoen ulerkeratik haratago, naziotasunari erreferentzia egiten dion kontzeptu politikoa da. Hain zuzen ere, estatuek asimilaziora bideratutako estrategiari kontrajarritako terminoa dugu Euskal Herria. Horrela, Euskal estatu independente eta sozialista klaserik gabeko gizarte baterako lehen urratsak emateko tresna izan behar dela deritzo koordinadorak. Hori lortzeko, konfrontazio politikoa, prozesu iraultzailea abiarazteko beharrezkoa den ziklo politiko berriaren motorra izan behar da.

Horregatik, apirilaren 17an Gernikan burutuko den Aberri Eguna, ospakizunez haratago edota Euskal Herriko langileon lepora gure odol nahiz izerdia xurgatuz bizi diren burgesekiko zubiak eraikitzeko aitzakia izateaz haratago, lanketa politikorako egun gisa ulertzen du JARDUN-ek. Erresistentziarako eta apurketarako tresna gisa, hain zuzen ere, lanketa ideologikorako elementu bilakatu behar dena. Hori dela eta, Euskal Herriko langileok hitzordua dugu apirilaren 17an, Gernikan, Aberri Egunean.


EUSKAL HERRIAK AMNISTIA

Otsailaren 5ean, JARDUN-en baitan jazarpenari aurre egiteko antolatzen ari diren kideek, Iñaki Etxeberria espetxetik atera berri den preso politiko ohiarentzako dirua lortzeko asmoarekin, egun osoko egitaraua antolatu zuten Donostiako Antiguoa auzoko Txantxarreka gaztetxean. Bertan, “Oroimena, duintasuna eta borroka” izenpean, Bego Castillo, Mikel Castillo eusko gudariaren arreba, eta Arantza Yoldi, Alfonso Yoldi eusko gudariaren arrebaren eskutik solasaldia burutu zen. Honekin batera, herri bazkaria antolatu zuen JARDUN-ek. Arratsaldean, “Zer da errepresioa?” hitzaldiarekin errepresioaren inguruan estatuek burutzen duten errepresio forma ezberdinen funtsaz, intenzionalitateaz eta honen erabilpenaz solastu ziren JARDUN-eko kideak. Egitarauari gaueko kontzertuekin eman zitzaion amaiera.

OTSAILAK 13 TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Euskal Herriaren historian zehar, honen askatasunaren aldeko borrokan jardun dute milaka militante iraultzaileak, askapen-prozesuaren hasieratik frantziar eta espainiar estatuek beren jarrera errepresioa argi utzi dutelarik: Euskal Herriaren aldeko militante iraultzaileak atxilotuz, torturatuz eta erailez. Izan ere, tortura estatu jazarzaileek darabiltzen beste arma politiko bat da, gizartean beldurra hedatzeko eta militante iraultzailea kontrolatzeko zein suntsitzeko asmoarekin baliatzen duena. Hau aurrera eramaterako orduan, kolore ezberdinetako txakurrek paper aktiboa jokatzen dute, tortura burutzearen arduradunak suertatzen direlarik, Euskal Herria jazaritzen duten estatu espainiar eta frantziarraren agindupean.

Era horretan, JARDUN-en baitan jazarpenari aurre egiteko antolatutako kideek, estatuek euren burua zuritzerako orduan burutzen dituzten saiakerak salatu eta amnistiaaren aldarrikapena kaleetara plazaratzeko baliatu zuten otsailaren 13a. Horretarako,



otsailaren 13ari begira burututako kanpainen zehar torturaren erantzuleak seinalatu eta erabili duten sufrimendua gogora ekartzeko gain, hau salatu zuten. Ildo horretatik, otsailaren 13an hainbat ekimen burutu ziren Euskal Herriko txoko ezberdinetan barrena. Era berean, aurreko egunetan, Busturialdean, otsailaren 7tik 13ra, “Torturarekin bizi” Rosi Arana Txakartegiren margolanen erakusketa antolatzeaz gain, otsailaren 11n Astran “Tortura Euskal Herrian, torturaren testigantzak zuzenean” hitzaldia antolatu zen. Bertan, euren militantzia iraultzaileagatik tortura pairatutako militanteen esperientziak partekatu ziren. Aipatzekoa da, ekimen ezberdinak burutu bitartean, Iruñeko JARDUN-eko kideak polizia nazionalak identifikatu zituela. Identifikazio hauek koordinadora bere sorreratik indar jazarzaileen partetik pairatzen ari den segimendu, mehatxu zein jazarpenaren baitan kokatu behar ditugu. Ildo beretik, Donostiako Aste Nagusian Iñaki Bilbao Txikito preso politikoaren gose grebarekiko elkartasunean jarritako pankartak jartzeagatik, Donostiako udalak guztira 1200 euroko kantitatea jasotzen duen isuna ailegarazi zien Donostiako JARDUN-eko 3 kideri, otsailaren 25ean.

MARTXOAREN 3A BORROKAREN HILEZKORTAUNA

JARDUN koordinadorak Martxoaren 3an Gasteizen, arratsaldean, urtero legez, data horretan borrokan eraildako bost langileak gogora ekartzeko eta euren borrokaren zilegitasun nahiz aldarrikapenen gaurkotasuna aldarrikatzeko burutzen den manifestazioan parte hartzeko deialdia luzatu zuen Gasteizen. Izan ere, koordinadorearen arabera, klase batasunaren bitartez langile sektoreen arteko desberdintasunak gainditzea erdiesteaz eta etsaiari aurre egiteaz gain, langile borrokaren bitartez euren aldarrikapenak lortu zituzten borrokaren erakusgarria da Martxoaren 3an garatutako langile greba. 8 orduko lanaldiaren, oporrak izateko eskubidearen edota soldata igoeraren eskakizuna zituen greba, kaleak hartzeko gaitasuna izanda eta klase borrokaren irudi zein ikur bilakatuta, sasoiako Espainiako estatu frankistaren baitako errepresio basatiaren bitartez izan zen erantzuna, bake soziala inposatzeko asmoarekin. Zehazki, testuinguru horretan kokatzen du bost langileen erailketa JARDUNek, izaera partzialetik haratago izaera integraleko alternatibaren osaketari estatu kapitalistak dion beldurraren eta mehatxu honi aurre egiteko bitartekariak martxan jarriko dituen adierazle gisa ulertuz. Horrenbestez, koordinadorak esperientzia horretatik ikasi eta klase perspektibatik zapalkuntza zein esplotazioari aurre egiteko hautua egiteko deialdia burutu zuen. Era berean, martxoaren 2aren eta 3aren bitartean, JARKI antolakunde iraultzaileak Martxoaren 3ko aldarrikapena eraman zuen Euskal Herriko hiriburuetara, hauetan lanketa komunikatibora bideratutako ekintza ezberdinak burutuz.

YVAN COLONNA AGUR ETA OHORE

JARDUN-en baitan jazarpenari aurre egiteko antolatzen ari diren kideek, Yvan Colonna Korsikako askapen mugimenduko kidearen heriotza salatzeako kontzentrazioak burutu zituzten Gasteizen eta Donostian, martxoaren 25ean eta 26an, hurrenez hurren. Yvannek 19 urte zeramatzan frantziar estatuko espetxeetan eta, Arleseko espetxean zegoelarik, preso baten jipoiaren ondorioz egoera larrian geratu zen, 3 asteren buruan zendu zelarik. Frantziar estatuak Yvannen hilketan izandako papera salatzeako, ugariak izan dira erasoak burutu zenetik Korsikan eman diren istiluak. Ataka horretan, JARDUN-ek ezinbestekotzat jotzen du internazionalismoa aldarrikatu eta herri langileon arteko elkartasuna bultzatzea, borroka iraultzaile ezberdinen artean babesa eskainiz, elkarlaturak sustatzearekin batera. Ildo horretatik, Yvannen heriotza frantziar estatuaren espetxe politikaren ondorio zuzena izan zela salatu nahi izan du, Yvan honen eraginez hil dela argi uztearren. Espetxe politika hau, frantziar estatuak betidanik sostengatu duen jarrera inperialistaren baitan ulertu beharra dagoela deritzo koordinadorak. Izan ere, Korsikan independentziaren aldeko borroka hamarkada luzez eman izan da, bertan frantziar estatuak inposatutako sistema ekonomiko eta politikoa gainditzeko asmoarekin. Korsikaren borroka frantziar inperialismoaren aurkako borroka gisa ulertzen du koordinadorak, bertako herri langilearen zapalkuntza eta jasaten duen esplotazioaren aurkako borroka gisa, alegia.

BASAJAUN GOGOAN ZAITUGU

Aurtengo martxoaren 26an 25 urte bete dira Josu Zabala Salegi, Basajaun, erail zutenetik. Josu, Basajaun, 1997ko martxoaren 23an, Bilbon, Korrikaren amaiera ospatzen ari zenean, hitzordua batera zihoala ikusi zuten azkeneko aldiz kideek. Izan ere, egun horretan Espainiako estatuko mertzenarioak desagerrarazi zuten Josu. 4 egun desagertuta eman ostean, martxoaren 27an Debako Itziar auzoan aurkitu zuten Josuren gorpua, bularrean tiro bat zuelarik. Bertsio ofizialak bere buruaz beste egin zuela esaten bazuen ere, guk argi daukagu, Josu Euskadi Ta Askatasunako militantea zelako erail zutela.

Hamaika dira Euskal Herriaren gogoan bere askatasunaren alde borrokatzeagatik egutegian odolez eta malkoz markatutako egunak. Hori horrela, egun hauek izaera politikoz eta parametro iraultzaileetan landu beharreko egunak direla deritzo JARDUN koordinadorak. Izan ere, Euskal Herriak klase zein nazio parametroetan oraindik ere zapalduta jarraitzen du, kolore ezberdinetako txakurren bidez herri okupatua izaten jarraitzen dugularik. Bide horretan, azpiratuta mantentzen gaituztenei hortzak erakustea besterik eza zaio gelditzen Euskal Herri Langileari, Josu eta gainontzeko eusko gudariak eramandako borroka horren adibide nagusia dugularik.

Hori dela eta, martxoaren 26an, Etxarri-Aranatzeko JARDUN-eko kideek Basajauni omenaldia egin zioten bere jaioterikiko, Etxarri-Aranatzeko plazan, Josu eta beste eusko gudariak egin bezala, Euskal Herrian independentziaren eta sozialismoaren alde antolatzen eta borrokatzen jarraitzeko koordinadorak daukan asmo irmoari erantzunda. Euskal Herriaren alde borrokatu dutenengatik, guri baitagokigu borrokaren lekuko hartu, gurea egin eta hau bururaino eramatea..

JOSE ANTONIO DIEGUEZ GOGOAN

Aurtengo martxoaren 6an, 9 urte bete dira Jose Antonio Dieguez etxetik kaleratua izatear zegoen egunean bertan bere buruaz beste egin zuenetik, batzorde judiziala iritsitakoan leihotik jauzi egiterakoan. Ustezko suizidio honen sorburua egiturazko arazoetan dagoela agerian uzteko, Bilboko JARDUN-eko kideek, Deustuko Alogerekoak etxebizitza sindikatuarekin batera, martxoaren 6an Antonio gogora ekartzeko eta bere heriotzaren zergatia salatzeako ekintza ezberdinak burutu zituzten, Jose Antonio auzokidea oroitu eta berriro horrelakorik gerta ez dadin.

MARTXOAK 8 EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

JARKI antolakunde iraultzaileak, Martxoaren 8ari begira, JARDUN-en baitan antolatzen ari diren emakume langileekin elkarlanean, kanpaina komunikatiboa burutu zuen Euskal Herrian barrena. Kanpaina honen bitartez, antolakunde iraultzaileak zein JARDUN Koordinadorak, emakume langilearen nazioarteko egunaren klase izaera aldarrikatzearekin batera, emakume langileak sistema kapitalistan jokatzen duen papera eta hau gabe kapitalismoari

"antolakunde iraultzaileak Martxoaren 8ko lanketa komunikatiboan emakume langilearen zapalkuntzaren gaindipena, berau baliatu eta sustatzen duten arrazioen desagerrarazpenarekin batera kokatzen du, hots, sistema kapitalistaren desagerrarazpenarekin batera. "

bizirutea ezinezkoa zaiola salatu zuen. Era horretan, bere izerdia xurgatzeaz haratago, langileak egunero lanera itzultzeko beharrezkoak diren izaera birproduktiboko lanak genero rolen bitartez leisitzen diola adierazi zuen. Martxoaren 8a, emakume langileek egunerokotasunean darabagun borroka baliotsi eta berresteko eguna zela aldarrikatu zuen antolakunde iraultzaileak, Euskal Herriko langile klasearen partaideen arteko batasuna aldarrikatzerekin batera, honek pairatzen duen zapalkuntza forma ezberdinei izaera integraleko erantzuna ematearen beharra azpimarratuz.

Horretarako, konfrontazioa eta borroka aurretik aipatutako zapalketei aurre egiteko derrigorrezko baldintza gisa kokatu zituen, antolakuntza hauek lortzeko ezinbesteko tresna dela azalduz. Izan ere, antolakunde iraultzaileak Martxoaren 8ko lanketa komunikatiboan emakume langileen eta burgesen arteko edozelako ulermen edota izaera interklasistako lankidetzara edota elkar-ulertzea erabat alboratzeaz gain, emakume langilearen zapalkuntzaren gaindipena, berau baliatu eta sustatzen duten arrazioen desagerrarazpenarekin batera kokatzen du, hots, sistema kapitalistaren desagerrarazpenarekin batera. Emakume langilearen auzia, langile klasean parte gareen ororen auzi gisa kokatuz, Euskal Herri Langile osoak kontzientzia hartu eta egun errotuta dagoen ideologia burgesa gainditzeko bidean antolakuntza aldarrikatu zuen antolakunde iraultzaileak. Horrekin batera, Euskal Herriko emakume langileek emakume gisa pairatzen dugun zapalkuntza espezifiko

zein Euskal Herriko langile guztioak pairatzen dugun zapalkuntza forma ororekin amaitzeko tresnez hornitzeko beharra plazaratu zuen.

Bide horretan, JARKI antolakunde iraultzaileak Martxoaren 8an aurrera eramandako lanketa komunikatiboarekin batera, Gasteizko JARDUN-eko kideek “Emakume langilea borrokan lelopean”, otsailaren 24an mahai-ingurua antolatu zuten otsailaren 24an, Gasteizko gaztetxean, “Zaintza herri negoziola: adineko egoitzak eta APDEMA” izenburupean. Sektore honetan langile borroka ezberdinetan ariutako langileek esperientziak jasotzeko partekatzeak aukera emaitzen. Era berean, otsailaren 26an, Martxoaren 3ko gertaerietan emakume langilearen paperaren inguruan hausartu eta hau azaltzen zuen bisita gidatua antolatu zuten, hirian barrena.

Menua bueltatu

**MARTXOAREN 3A, OROIMENA
GARA, BORROKAREN PARTE DIRA**



Martxoaren 3a euskal herritarrok oroimenean iltzaturik daukagun data da. Urtero, gogoan ditugu polizia frankistak eraildakoen aurpegiak, zerua zeharkatzen zuten ke-poteen irudiak, barrikada eta bala-inpaktuen argazkiak. Oroimena gara, Gasteizen 1976ko martxoaren 3an gertatutakoak gure barnean bizirik irauten duelako, gure oraina baldintzatuz eta borrokarako grina piztuz.

Egun horretako gertakariak ondo ulertzeko 1976ko testuingurura jo behar dugu, langile klasearen egoera ezagutzeko. Egoera politikoa korapilotsua zen oso: diktadorea hil berria zen azaroan, baina bere erregimena ez zen berarekin hil, ondo errotuak baitzituen sustraiak. Langile mugimendua aktibatzen hasia zen, legetik kanpo eta klandestinitatearen laguntzaz, krisi ekonomiko larritik eratorritako miseriari aurre egiteko. Gasteizen langile klasearen presentzia zabala zen, 50.-60. hamarkadetan emandako industrializazio prozesuari esker, honek hiriaren populazioa urte gutxitan bikoiztu zuelarik. Horrela, hirira espainiar etorkin asko ailegatu ziren, industria horretan lan egitera eta, hala, gasteiztar gizartea eraldatu egin zen hamarkada horietan zehar.

Ez da kasualitatea greba hau urtearen hasieran eman izana. Izan ere, soldataren berrikusketa eta hitzarmenen berriztapenak ematen ziren urte hasieran. Modu honetan, langileak asanbladetan antolatzen hasi



" Gasteizen langile klasearen presentzia zabala zen, 50.-60. hamarkadetan emandako industrializazio prozesuari esker, honek hiriaren populazioa urte gutxitan bikoiztu zuelarik."

ziren patronala presionatzeko, baldintza hobeak helburu izanik. Hala, urtarrilaren 9an Forjas Alavesas fabrian greba deialdia luzatu zen eta, laster, beste lantegi asko batu ziren grebara: Mevosa, Aranzabal, Gabilondo, Ugo, Apellaniz, Areitio, Orbegozo, Cablenor, Talleres Velasco eta I. Galicas, besteak beste.

Egun horretatik aurrera produkzioa eten zuten grebalariek, eta patronalaren erantzuna fabriketako eraikinak ixtea izan zen, bertan langileen asanbladak ematea ekiditeko helburuarekin. Asanbladetan, Sindikatu Bertikalaren aurkako jarrera zabaldu zen, sindikatu frankista honek ez baitzuen langileen benetako ordezkapenik gauzatzen. Horregatik, Ordezkaritza Komiteak hautatu ziren lantegi bakoitzeko asanbladetan. Lantegien asanbladetan emango ziren eztabaidak eta hartuko ziren erabakiak, Ordezkaritza Komiteak, berriz, fabriken arteko koordinazio eta komunikazio funtzioak beteko zituen. Hala, grebalariek eskakizun orokor batzuk bateratu zituzten: soldataren igoera lineala (5.000-6.000 pta); asteko 40 orduko lanaldia; hilabete bateko oporrak, zubiak eta hamaiketako hartzeko ordu erdi libre; 60 urterekin lanuztea



"Ordezkaritza Komiteak hautatu ziren lantegi bakoitzeko asanbladetan."


gauzatzeko aukera soldata osoarekin, baita istripu edo gaixotasun kasuetan; Sindikatu Bertikalaren desartikulazioa eta ez ematea grebaren ondorioz ez kaleraturik ez atxiloturik.

Hala, egunak aste bihurtu ziren, eta grebak aurrera jarraitu zuen bi hilabetez. Bitartean, indar errepresiboek erantzuna eman zioten sendotzen ari zen langile mugimenduari:

asanblada asko deseginak izan ziren, atxilotuak egon ziren, zigor ekonomikoak... Gainera, grebalari borrokalarienak kaleratuak izan ziren haien lantokietatik, eta haien inguruko gezurrak barreiatu zituen patronalak: erresistentzia kutxetatik dirua lapurtzen zutela edo eskirolak zirela, adibidez.

Gauzak horrela, martxoaren 3a baino lehen, hamarnaka mobilizazio eta asanblada burutu ziren. Gainera, bi greba orokor egun deitu ziren, zeinetan enpresa askok egin zuten bat. Hortik gutxira, langile klaseko beste sektoreak ere batu ziren borrokara: grebalarien emazte eta senideak, ikasleak, auzokideak... Horregatik, martxoaren 3ko greba prestatze aldera, greban zeuden langileen asanbladez gain, emakumeen asanbladak, auzoetako asanbladak eta ikasleen asanbladak prestatu ziren.

Era horretan, martxoaren 3an, Gasteiz osoa kalera irten zen grebalariei elkartasuna adierazteko. Ikasleek klaseak hustu zituzten, komertzioek pertsiana jaitsi zuten



eta etxeetan ez zen inor geratu. Goizean goiz hasi zen poliziaren errepresioa, lehen bala-zaurituak emanez. Arratsaldean Zaramagako San Frantzisko elizan asanblada bateratu bat zegoen deituta, eta bertan 5000 pertsona zeuden bildurik, Ordezkaritza Batzordeko kideak itxaroten. Gauzak horrela, polizia frankistak eraikina inguratu eta bere barrualdea gaseatu zuen, bertatik ihesi atera zirenen kontra tiro eginez.

Sarraski honen ondorioz, Pedro M^a Martínez Ocio, Romualdo Barroso, Francisco Aznar, José Castillo eta Bienvenido Pereda langileak erailak izan ziren. Hildakoez gain, ehundaka zauritu egon ziren, langile asko kaleratuak izan ziren eta batzuk atxilotuak eta espetxeratuak izan ziren.



"Gainera, grebalari borrokalarienak kaleratuak izan ziren haien lantokietatik, eta haien inguruko gezurrak barreiatu zituen patronalak: erresistentzia kutxetatik dirua lapurtzen zutela edo eskirolak zirela, adibidez."

Martxoaren 3ko sarraskia gogoan daukagu, eta bere memoria bizirik mantendu behar dugu. Hala ere, oroitzapen hau ezin da biktimismo hutsean erori, oroimen memorialistikoan. Gure oroimena aktiboa izan behar da, gertakari hauek salatu, langile borroka horretaz ikasi eta gure borroka aktibatze sugarra izan behar du. Horregatik, omendu ditzagun borrokan eroritakoak, baina ez dezagun begirada iraganean kateaturik utzi, etorkizuna baitugu eraikitzeko.

MARTXOAREN 3KO BIZIPENAK



Gasteiztarra jaiotzez, **Amparo Lasherasek** hiru hamarkada luze daramatza kazetari eta idazle lanetan. Arlo politikoa ere aski ezaguna da Amparoren jarduna. Ezker Abertzaleko kide, D3M plataformako zerrendaburu gisa aurkeztu zen 2009an. Gainera, Gasteizko martxoaren 3ko sarraskia haurdun zegoen emakume langile bezala bizi izan bazuen ere, askotan parte hartu izan du gertakariak zabaltzeko hainbat ekimen eta jardueretan, bere konpromiso militantea une oro erakutsiz.

1. Zer testuingurutan suertatu ziren Martxoaren 3ko gertakariak? Zelakoa zen 1976ko Gasteiz?

Garai horretan esaten zen bezala, Gasteizen irudia hiri probintziano batena zen. Juan Antonio Bardemek bere pelikuletan deskribatu zuen bezala, “inoiz ezer gertatzen ez den lekua”. Hala ere, gauzak gerta gertatzen ziren eta gainera garrantzitsuak. Beste gauza bat da erregimenak hauek estaltzea eta errepresioa baliatzea, giro gris eta otzana eraikitzen jarraitzeko, frankismoak beti nahi izan zuen militarren eta abadeen giroa, alegia. Bazeuden klandestinitatean antolatuta zeuden gazte eta langileak, eta gehiengo ez izan arren, nahiko izan ziren borrokari ekiteko. 1970eko Burgoseko epaiketak, zeinetan ETAko militanteak epaituak izan ziren, eta 1975eko irailaren 27ko azken fusilamenduek, zeinetan ETAko bi militante, Txiki eta Otaegi, eta FRAPeke lau erailak izan ziren, Euskal Herriaren etorkizunari izaera iraultzaileko ideia berriekin begiratzen hasi ziren gazteak ateratu zituen kalera.

Langile mugimenduan antzeko zerbait gertatu zen. 1974an jada greba garrantzitsua burutu zen Michelinen, era gogorrean jazarriak izan ziren langileen manifestazioekin. Eta aurreko hamarkadetara joanez gero, oraindik gogoratzen dut, nire etxean zelan kontatzen zen kolpe militarra eta gero, hiru eguneko greba orokorra deitu zela. Ez dugu ahaztu behar, gainera, Gasteizen garai horretan bizi zen langile klasearen zati handi bat estatuko herrietatik etortitako immigranteak zirela, familiak fronte popularrari babesa ematearren jazarriak izan zirenak.


Laburbilduz, izaera lasai, klasista eta katolikoaren azpian, zeharo jazarria zen langile izaerako hiria ezkutatzen zen, Francoren heriotzarekin bere etorkizuna aldatzeaz amestu zuen hiria, hain zuzen.

2. Noiz eta zelan hasi zen greba? Zerk eraman zituen langileak grebara? Zer lantegi batu ziren honetara? Zeintzuk ziren euren eskari eta kontsignak?

Uste dut lehenengo gatazkak zenbait tailer eta fabriketan urtarilaren hasieran hasi zirela, baina amaierarako Forjas, Aranzabal, Industrial Gálicas, Apellaniz, Areitio, Esmaltaciones San Ignacio bezalako fabrika handiak batuta zeuden jada. Lehenengo arrazoiak enpresako juratuekin eta frankismoaren sindikatu bertikalarekin amaitzea zirela pentsatzen dut, eta 6 puntuko soldataren eskaera. Gero, lehenengo kaleratuak egotean, soldata eskaerari kaleratuak lanera itzultzea batu zitzaion. Eskariak, galdegiteak eta exigentziak lantzeko, asanbladak deitu ziren, lehenengo fabriketan eta gero auzoetan. Hauetan, hain zuzen ere, frankismoak lau hamarkadetan zehar zapaldutako langile klasearen askatasunaz eta eskubideez hitz egiten hasi zen. Asanbladek beraien ordezkariak hautatzen zituzten, asanblada bera zelarik erabakiak hartzeko eta karguak kentzeko eskumena zuena, zuzen bazeritzon. Gogoratzen dut 2001ean, 25. urtemugan, Lixiniano elkarteak Martxoaren 3aren inguruko liburua ateratu zuela “Botere guztia asanbladarentzat” izenburua zuena, hain zuzen ere. Esan genezake sasoi hartako Gasteizko patronalak irudi paternalista zuela, baina gaur egun bezain neoliberala zen errealitatean.

3. Zelan antolatu ziren grebaliak, grebak iraun zuen hilabeteetan zehar?

Fabrika eta tailer bakoitzak bere asanblada zuen, komite bat hautatzen zuena. Aurretik esan dudan moduan, komite hau kargugabetzeko aukera zuen asanbladak. Komiteekin batera, ordezkaritza komisiok sortu ziren, asanbladengatik osatuak zirenak. Bertan borroka zentralizatzeaz gain, beste eratako fronteetara eramaten zen, hala nola, ikasleria, auzoak edota hiriko klase herrikoiak.



4. Zein izan zen emakumeen papera greban? Zelan antolatu ziren?

Nire ustez oso garrantzitsua izan zen. Nik ezinbestekoa zela esango nuke. Emakumeak izan ziren dirua eta janaria biltzeaz arduratu zirenak, erresistentzia kutxa bat sortzeko. Eurak arduratu ziren gizarteari 8000 langile familia bidezko eskubide eta soldata duin batzuegatik borrokatzen ari zirela ikusarazteaz.

Merkatuaren egun guztietan 3000 emakume kalera ateratzen ziren, erosketaren poltsak eskuan, instituzio, patronal eta burgesiarren aurrean kaleratutakoak lanera itzultzea, bizitzaren garestitzea eta negoziazioaren gabezia salatzen. Asteartero eta ostiralero, fabrikako ateetara joaten ziren eskirolei



"Emakumeak izan ziren dirua eta janaria biltzeaz arduratu zirenak, erresistentzia kutxa bat sortzeko."

txaloak jotzera. Honen aurrean, zenbaitek halako lotsa pasa zuten, lanera joateari ere utzio egin zitela. Zenbaitetan ekintza hauek burutu bitartean, poliziagatik era oldarkorrean jazarriak izan ziren.

Erretaguardiaz arduratu zirela deritzot, borroka eta mobilizazio orotan ezinbestekoa dela dakigun partez, alegia. Ekintzak euren asanblada propioetan erabakitzen zituzten, ordezkaritza komisioren parte zirenak. Fabriketako beharginak izanda, zenbait komiteren parte izan ziren eta asanbladetan paper esanguratsua jokatu zuten emakumeak ere egon ziren. Ezin ditugu ahaztu, gainera, Areitioko emakumeak, grebara batzen lehenengoak izan zirenak, bakarrik, Areitioan lan egiten zuten gizonen inolako babesik gabe. Bakarrik gizon bat edo bik egin zuten bat eurekin.

Orain denboraren perspektibaz, gaur egun, Bizkaiko, Arabako zein Gipuzkoako erresidentzietan, Guggenheimeko garbiketean, Artiach gailetan lantegian, etab. greba garrantzitsuak mantentzen dituzten emakumeak etortzen zaizkit burura, euren kemena gogora ekartzen dudana bakoitzean. A! Eta ezin ahantz daiteke asanblada horietatik Arabako Emakumeen Asanblada sortu zela, Euskal Herriko lehenengoa.

5. Zer borroka molde baliatu zituzten greban ziharduten beharginek? Zer erantzun jaso zuten patronalaren zein indar errepresiboen partetik?

Batez ere asanbladak eta manifestazioak. Honekin batera, gaur egun bezala, informazio orriak banatzen zituzten kalean, fabrikako ateetan geratzen ziren, instituzioen aurrean protesta egiten zuten, etab. Greba egunetan burutu ohi diren gauzak, azken finean. Patronalaren erantzuna indar errepresiboen interbentzioa eskatzea izan zen, garaiko polizia armatua, alegia, edo grisak, sasoi horretan izendatzen ziren moduan. Edozelako kontzentrazio era basatian jazarri zezaten, bai kolpeka, bai eta atxiloteten bitartez ere. Hau guztia kalean ematen den beste tortura forma bat baino ez da.

6. Zer ezberdintasun aurki ditzakegu Martxoaren 3ko borroka formen eta gaur egungoen artean?

Ekintzetan ezberdintasunak, agian, gutxi. Gaur egun ere manifestazioak eta asanbladak burutzen dituztela imajinatzen dut. Egun, gainera, sare sozialak existitzen dira, lehen existitzen ez zirenak eta informazioarako bitartekari garrantzitsuak diirenak, baina ez dut pentsatzen hau berebizikoa denik. Nire ustez, aldatu direnak irmotasuna eta batasunaren gaineko konbentzimendua izan dira, elkartasunerako eta antolakuntzarako behararekin batera. Lehen eskirolekiko kritikoagoak eta gogorragoak zirela pentsatzen dut. “Lan egin nahi duena errespetatzea” eskubide bat delako oso demokratikoa izango da, baina, nire iritziz, izugarizko elkartasun falta suposatzen du. Izan ere, grebarekin zerbait lortuz gero, eskirolek greba egin dutenen onura bera ateratzen dute, baina azken hauek asko arriskutzen dute, batzuetan euren lanpostua barne. Bestalde, asanblada ebentualak greba ez egitea erabakiz gero, noizbait gertatu den moduan, eta asanbladan erabakitzen baldin bada, nire ustez, gauza ezberdina da. Hala ere, gainerakoagatik, lanera joaterakoan euren eskubidea baliatu beharrean, bizitza guztian eskirol bezala izendatu dena izaten ari direla ikusarazi behar zaie, hitz honek dituen konnotazio guztiekin. Izan ere, lanerako benetako eskubidea denok lan duina eta ordaindua dena edukitzea da, oinarritzko eskubidea dena, bai giza eskubideen aldarrikapenean, bai Konstituzioan.


7. Zein izan zen Gasteizko gizartearen jarraera grebaren aurrean?

JLangile auzoetakoa oso solidarioa, oso antolatua eta batasun handikoa. Burgesia erabat kontra agertu zen eta klase ertainak, beti egiten duten moduan, beste aldera begiratu eta isildu egin ziren. Asko kalera bakarrik hiletaren egunean ateratu zirela uste dut. Martxoaren 3an goizean egoera zelan zegoen ikusita eta 3 hilabeteko grebaren ostean, kalera irteten ziren zenbait enpresa egon ziren, langileek horrela erabaki zutelako edota patronalak berak enpresa itxi zuelako arazoak ekiditeko. Bankuetan, adibidez, Martxoaren 3an bertan langileak kalera aterarazi behar izan zituzten piketeak egon ziren, zenbait sukurtsalek ez zutelako grebarik egin nahi. Inoiz zenbaitek hiri guztiak parte hartu zuela esan dute, baina ez da guztiz zehatza. Langile klaseak hartu zuen parte eta langile klasearen borroka bat izan zen. Inbolukratu egin ziren auzoak, ikasleak eta klase herrikoiak, baina hiri guztia? Ezta pentsatu ere. Ni bizi nintzen gunean, erdigunean eta ensantxean, bai beldurragatik edo dena delakoagatik, auzokideen gehiengoak erabat pasatu egin zuen. Sarraskia gauzatu zutenean egoera aldatu egin zen eta hiletaren eguna ikaragarria zirraragarria izan zen. Hor bai egon zen hiri guztia, burgesak izan ezik, noski.

8. Zelan eman ziren Martxoaren 3ko gertakariak? Zelan bizi izan zenituen zuk zeuk egun horretako gertakariak? Ba al duzu momentu horietako irudi edota soinuren gogoan? Zer oroitzapen duzu hurrengo egunetaz? Gasteiz zer eratan markatuta geratu zela deritzozu?

Nire gogoan, harritu ninduen eta grabatuta geratu zena isiltasuna izan zen. Tiroak entzun eta hiru behargin erailak izan zirela jakin zenean hiria hartu zuen isiltasuna, alegia. Gogoan dut amak “isiltasun honek gerraren egunak gogorarazten dizkit, estatu kolpearen eguna” esan zidala. Bere hitzek bihotza uzurtu zidaten. Ostean, isiltasuna Gasteizen zeuden anbulantzia apurren sirenengatik eta kaleetatik txirrina joz eta zapi zuriekin zaurituak zeramatzaten kotxeen motorrengatik apurtua izan zen. Jendeak kaleak hartu, eta hauek moztuz barrikadak egiten hasi zen. Baina hori gerora izan zen. Isiltasuna, isiltasun sakona. Heriotzaren antza zeukan isiltasuna, bai goizeko orduetakoa, gauetakoa. Hori ez dut inoiz ahaztuko.

Hurrengo egunak, oso ziurgabeak eta tristeak izan ziren. Neurrizko errebeldia igartzen zen, mundu guztia kaleak berriz hartzeko prest egongo balitz bezala. Historia denboraz erratu izan balitz bezala, eta impasse iraultzailean utzi izan bagintu bezala. Gero langile esanguratsuenak atxilotzen hasi ziren, eta gobernuen jazarpena, errebeldia hori hilabete horiek bizi eta mugimendu horretan parte hartu genuenon bihotz eta ideietan gordeta geratzeaz arduratu zen. Parte batean, sentimendu hori, Andra Mari Zuriaren festetan azaleratu zen, jazarpenari aurre eginez antolatu ahal izan ziren protesta eta mobilizazioetan.



9. Zelakoa izan behar dela uste duzu Martxoaren 3ko oroimena? Zer irakaspen ater dezakegu esperientzia honetatik?

1976. urtean aurrera eramandako langile borrokaz ari garenean, garaipenaz edota porrotaz ari gara?

Niretzat edozein borrokatan ezinbestekoak eta beharrezkoak diren zenbait kontu daude, eta hauek Martxoaren 3an eman ziren: batasuna, antolakuntza, elkartasuna, konpromisoa eta, bereziki, aurrera eramaten ari zarenaren gaineko uste irmoa. Borrokatzen duzunarengatiko uste irmoa. Gero, ordezkaritza komisioetan inplikatuago egon ziren pertsonen ondorioak egongo dira, ni baino hobeto eta autoritate handiagoaz azaldu ahalko dutenak, zuzenean langile mugimenduaren antolakuntzari dagozkionak.

Garaipena edo porrota izan zenari dagokionez, grebari hasiera eman zioten soldata eskakizunei dagokienez, garaipen garrantzitsua eta argia izan zen. Tamalez, orduan lortu zena egun desagertu egin da, jada existitzen ez diren lan eskubideak dira eta. Gainera, bizitzak galtzen direnean eta inpunitateak hiltzaileak babesteaz gain, ahanztura demokratikoak memoria bere egin duenean, porrot bat izan zenaren sentzazioa eduki daiteke, baina ez. Langile klasearen benetako borrokek ez dute inoiz porrotik suposatu. Izan ere, beti geratzen da hazi ideologikoaren hondarra, leku batetik bestera eramaten gaituen haize bolada eta eskuratu gabeko ametsaren erreferente gisa diharduena. Sasoi bateko utopiaren erreferentea. Bidea egin eta pertsona langile askok euren oraina eta etorkizuna aldatzeko grina izateari ekarpena egin dio, barbariearen sinonimo perfektua den sistema kapitalista ahuldu eta eraldatzeko lagundu behar duten baldintzak sortzearen alde, ahal duten moduan borrokatzen dihardutelarik.

Beti esaten dut XIX. mendetik aurrera eramán diren langile borroken inguruko garaipen edo porrotaren dilemaz ari garenean, bai 1878ko iraultzak, Parisko Komuna, Errusiar Iraultza, Kuba, Vietnam, Asturiaseko Iraultza, ETaren sorrera... benetan burutu beharko genukeen galdera dela, zelakoa izango litzateke mundua, hauek gauzatu ez balira? Martxoaren 3arekin gauza berbera egin beharra dagoela deritzot. Gaur egun badira langileen borroka asko, Martxoaren 3ari begira zelan egin zuten galdetzen dutenak, zelan antolatu ziren eta, garrantzitsuena dena, zergatik. Eta niretzat, galdera horiek eurek garaipen historikoa suposatzen dute.



[Menura bueltatu](#)



FORMAKUNTZA



FAMILIAREN PAPERA GIZARTEAN

FAMILIAZ

Gure bizitzako lehenengo momentutik ikasten dugu zer den familia, bai norberak zuzenean jasaten duelako, bai gure inguruan ikusten dugulako. Elkarrekin bizi diren eta ahaidetasuna duten pertsonak osatzen duten kolektiboa da familia. Familia eredu edo forma ugari aurkitu daitezke gizarteetan, baina eredu guztiek ezaugarri komun batzuk partekatzen dituzte. Besteak beste, pertsonen lehenengo sozializazio esparrua izan ohi da familia, bertan hizkuntza, jarrerak, ohiturak, ... ikasi eta barneratuz.


Egun bizi dugun gizarteetan, oinarritzko nukleo soziala dira familiak. Hau da, gizabanakoak familietan batzen dira, hauek etxebizitzetan, auzo, herri, herrialdeetan, ... Ideologia zapaltzailearen aldetik ez da ezbaian ipintzen familiaren ideia, are gehiago, familiaren apologia eta sustatze zuzena burutzen du ideologia honek: burgesak zein erlijioek bezalako indar atzerakoiek antolatutako familia foroak, masa kulturaren bitartez familiaren apologia



(telesaiak, nobelak, filmak, ...), ... Hortaz, familia, egitura sozial gisa, klase zapaltzailearen interesekin bat datorrela aurreikusi daiteke. Familiari esleitu ohi zaizkion onura asko, adibidez elkarlana, ardurak banatzea, ... talde izaeraren onura dira, haien zergatia ez da ahaidetasuna patekatzea. Familiaren "onurak" gure pentsamenduan barneratuta ditugu jada, familia zilegiztatzeko helburuarekin. Jarraian aipatzen diren ezaugarriak familiek partekatzen dituzten funtzioen artean kokatzen dira, oro har egunerokotasuneko solasaldi zein eztabaidetan presentziarik ez dutelarik.

LAN INDARRAREN BIRPRODUKZIOA

Familiaren bitartez, kapitala metatzeko oinarritzko baldintza den lan-indarra birproduzitzen da. Kapitalismoaren baitan, oinarritzko nukleo soziala familia edo beste eredu bat izanda ere, lan indarraren birprodukzioa sustatuko litzateke berdin-



berdin. Hala ere, familiaren eredu tradizionala erabilita, historian zehar kapitalismoak aurretik existitzen ziren harreman patriarkalak bereganatu eta moldatu egin ditu eta emakume eta gizonen arteko dominazio harremanak baliatuz, langileen lan-indarraren esplotazioa areagotzea ahalbidetu du familiak: emakumeen lan bikoitza, langileen zaintza lana, haurren zaintza eta prestaketa, ...

IDEOLOGIA ZAPALTZAILEAREN TRANSMISIOA

Ideologia zapaltzailearen garraibide nagusien artean kokatzen dira hezkuntza sistemak eta hedabideak, klase zapaltzaileak hauek inposatutako errealitatea eta injustiziak normalizatzeko erabiltzen ditu eta. Alde batetik, hezkuntza sistemak, belaunaldi berriei haien pentsamendua gizartea onartzeko prest ~~uzten diote. Bestetik, hedabideek, herriar~~ ororen pentsakera zapalketen normalizazioan mantentzeko lana burutzen dute egunerokotasunean.

Familiaren egitekoa ideologia zapaltzailearen transmisioan belaunaldi berriei kokatzen da oro har. Ideia eta argudio zapaltzaileak hedatzeko bitartekoa bilakatu ohi da familia, nahiz eta aurreko parrafoan aipatutako tresnen alderantziz, ez


"Ondorioz, argudioetan, erabaki askean eta errespetuan oinarritutako giza harremanak landu ordez, pertsonen arteko harreman zapaltzaileak sortzen dira familia testuinguruan, belaunaldiz belaunaldi hedatzen direnak..."

duen jasaten klase zapaltzailearen instrumentalizazio zuzena. Familia esparruan belaunaldi berriek bizitzan, egunerokotasunean nola jardun, zelako jarrera izan, argudioak, ... jasotzen dituzte, bai modu zuzenean bai zeharka. Hau da, gurasoekiko eta oro har senideekiko harremanean jasotako estimuloz gain, helduek elkarrekin harremantzeko eran jarrera eta portaera ereduak jasotzen ditugu



txikitatik. Trasmisio hau ez da mekanikoa, guraso perfil zehatz batek ez du zertan seme-alaba perfil zehatz berdina garatu behar. Azken finean, familiaz gain faktore anitz daude eta haur baten sozializazio prozesuan. Baina txikitatik etxean entzundako ideiek eta bizitako jarrerak eragina dute guregan. Biztanleriaren gehiengoak ideologia burgesa partekatzen badu, eskolan zein hedabideetan ideia hauen transmisioa burutzean hauen errotzea gehiago ahalbidetzen da aurretik haurrek etxean jada oinarritzko ideiak barneratu badituzte.

Derrigor aipatu behar dira familiaren izenean burutzen diren injustiziak, ideologia zapaltzaileak injustiziak sustatzen dituen heinean. Guztiz txertatuta dugu gure senideak defendatzeko eta zuzitzeko joera: "Nire ama denez, nire bizitzarekiko burutzen duen kontrola onartu behar dut"; "beste pertsona bat erasotu du justifikaziorik gabe, baina lehengusua denez bere alde kokatzen naiz"; sexu-abusuak zuzitu, eta okurrizten zaizkizuen egunerokotasuneko beste hamaika egoera. Ondorioz, argudioetan, erabaki askean eta errespetuan oinarritutako giza harremanak landu ordez, pertsonen arteko harreman zapaltzaileak sortzen dira familia testuinguruan,



belaunaldiz belaunaldi hedatzen direnak. Senideen defentsarako joerarekin harremanduta, familiaren eraginez senideekiko maitasun harremanek garapen ugari izan ditzakete, askotan harreman zapaltzaileak sortaraziz. Bertan kokatu daitezke, besteak beste, aiton-amonak biloben lanaldi osoko soldatarik gabeko zaintzaileak bilakatzea, edota guraso eta seme-alaben arteko harremanak seme-alaben nahietara soilik bideratzea, gurasoen denbora libre eta aisialdia bertan behera geratuz.

HERENTZIA ESKUBIDEA

Hildako pertsona baten ongiak, jabetzak zein zorrak beste pertsona bati transferitzean datza herentzia eskubidea, oro har hildako pertsonaren nahiaren arabera. Eskubide hau kapitalismoaren oinarri legalean pribilegiozko posizioa du. Frantziar estatuan 728/2006 legearen bitartez zehazten da, eta espainiar konstituzioan 33. artikuluan agertzen da herentzia eskubidea. Oro har, hil aurretik idatzitako testamentuen bitartez gauzatzen da herentzia. Hala ere, testamentuaren faltan ere burutzen da herentzia, inguruko senideei transferituz ongiak eta jabetzak.

Familian oinarritutako herentzia eskubideak antzinako jatorria du, jabetza pribatuaren sorrerarekin batera, ongiak eta jabetzak hildako jabeen legatu gisa semeei igaroz. Egun, kapitalismoaren pean, burgesaren oinordekoak enpresa jasotzen duen bezala, langileen seme-alabek soldatapeko lana burutu behar dute gaztaroko gurasoen mantenua amaitzean. Ezaguna da mundu mailan kapital metatze zifra handienak dituzten burgesak familia herentziaren hurrengo katebegia direla, belaunaldiz belaunaldi gero eta gehiago metatzen dutelarik.

Atal honekin amaitu aurretik ezin dugu ahaztu Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunean, 1936 urteko konstituzioan (1977 urtera arte iraun zuena hain zuzen), herentzia eskubidea objektu eta jabetza

pertsonaletara mugatzen zela.

NEPOTISMOA

Nepotismoa senitartekoei (baita lagunei) kargu publikoak edo pribatuak eskuratzean datza, pertsonen lan egiteko gaitasuna alboratuz. Klase gatazkaren baitan klase zapaltzaileak erabili izan duen eta erabiltzen jarraitzen duen mekanismoa da nepotismoa. Senideei dirua emateaz haratago, agintariak menpean duen egituraren gaineko kontrola areagotzeko baliagarriak dira praktika nepotikoak. Hori bai, ohitura hau ez da soilik klase zapaltzailera mugatzen, klase zapalduaren baitako eragileen artean ematen dira familia loturak pertsonen gaitasunen

aurretik hobesten dituzten kasuak.

ONDORIOAK

Familiak burutzen dituen ezkutuko funtzioek kapitalismoaren eta zapalketen alde jotzen dute gaur egun. Honek ez du suposatzen, noski, taldean bizitzearen onurak ukatzea. Azken finean izaki sozialak gara, gure izaera eta bizitzaren beharrezko baldintza delarik taldean egotea, eta gure ardura da ahaidetasunean oinarritutako harremanak era egokian kudeatzea. Bitartean, gizarteko oinarritzko nukleo sozialak klase zapaltzailearen mesedetara burutzen dituen funtzioak presente izatea garrantzitsua da ideologia zapaltzailearen aurrean borroka ideologikoa burutze aldera.

HAUSNARKETA



DOMBASSEN EGOERAZ

Egunotan nazioarteko hedabide guztiek Ukrainara begira gaituzten honetan, otsailaren 24ko goizetik jazotzen ari dena ulertzeko, egoera honetara heltzeko eman den jatorria analizatzera jo behar dugu. Kiev historiako lehen hiri errusiarra izateaz, edo SESBek Errusiar Inperioaren ondare zentralista deuseztatzeko 1919tik Ukraina ukrainartzeko esfortzuez luze aritu bagintezke ere, hobe deritzogu azken hiru hamarkadetan zentratzeari. Hala, gehiegi luzatu gabe, Gerra Hotzaren amaiera geopolitikoan kokatu behar dugu, hastapena 1990eko azaroan Alemania burgesa bateratu eta bost astera Parisen burutu zen ESLaren goi-bilkuran jarritz.


Bertan, goi-bilkurako dokumentuaren aktei erreparatuz, James Baker — AEBtako Estatu Idazkaria —, Helmut Kohl — Alemaniako Kantzileria — eta Manfred Wornerek — NATOkoko Idazkari Nagusia — garaiko SBAKeko buru zen Mikhail Gorbachovi promesa argia egin zioten: NATO ez zen alemaniar mugetatik ekialdera hazkada bat ere mugituko, ‘not even one inch’ esapide ezagunaren bidez. Promesa hau bistakoa da ez dela bete. Izan ere, Euskal Herri Langilea zapaltzen duten frantziar eta espainiar estatuei beste 14 herrialde batu zaizkie aliantza atlantikora.



"Gerra Hotzaren amaiera geopolitikoan kokatu behar dugu, hastapena 1990eko azaroan Alemania burgesa bateratu eta bost astera Parisen burutu zen ESLaren goi-bilkuran jarritz."

Era honetan, NATOren agendarentzat errusiar mugarekin 2.300 kilometro partekatzen dituen Ukrainaren kontrola bereganatzea berebizikoa bilakatu da. Honela, xede honen emaitza argienak “Iraultza Laranja” zein “Euro-Maidan” mugimenduekin ikusi ditu munduak. Hauek, gehienbat bigarrena, gakoak dira, Kievek 1988an frantziar ekonomiaren maila zuen herrialde sobietarra ordezkatzetik, 2020an Europako BPG per capita baxuena — Kosovo edo Moldaviaren azpitik — duen erregimen oligarkikoa ordezkatzera nola iritsi den uler dezagun.

Hala, 2010eko hauteskundeetara jauzi eginez, hauen ondoren Viktor Yanukovych oligarka presidente bihurtu zen, bere agintaldia Ukrainaren posizionamendu geopolitikoaren inguruan etengabe zeharkatua egonez, EBk uneoro Ukraina Bruselako taldera batu zedin borrokatu baitzuen. Izan ere, ukrainar ekonomia jada XXI. mende hasieratik Europar Batasunaren merkatu-gatibu bazen ere, EBk parte-hartze komertzialeko integrazio ituna luzatu zion Kievi. Itun honen bidez, Alemaniak eta Suediak 45 milioi kontsumitzaile berri eskuratu nahi zituzten, euren stock industrialak bertara bideratzearekin batera. Mugimendu hau ukrainar industria zein landa-ekonomiaren kaltetan ikusi zuen Yanukovychen administrazioak. Nola Ukraina hego-ekialdean aurkitzen den Donbasseko industria eta meatzaritza



indartsua pribatizatuz etekinak EB-ra higitzea, hala munduan emankorren diren lur beltz direlako lurrekin ukrainar landa-gunea lapurtzea mehatxu gardena zen, zalantza izpirik gabe. Orobat, Bruselak kooperazio tratuan Kievi 1.200 milioi euro eskaintzen zizkion bitartean, Errusiar Federazioak 17.500 milioi euroko eskaintza luzatu zion. Hau dela medio, hobekuntzarik egon ezean, ukrainar administrazioak logikoki Bruselaren hitzarmen proposamenari uko egin zion 2013ko azaroan, neurri honen ondorioak tsunami bilakatu.

Ukraina praktikan bitan zatituta dagoen herrialdea dela aintzat hartu behar dugu, Dnieper ibaiak maiz ikuspegi soziologiko bana zatitzen bait. Modu honetan, herritar multzo bat “ekialdeko neba-arreba eslabiarren” parte sentitzen den bitartean, besteak eraikuntza nazionala Ukraina “nazio europar” bezala ikusiz planteatzen du. Hain zuzen ere, bigarren estatu-kontzepzio honek 2013ko azaroan Euro-Maidan mugimenduak protestak abiarazi zituen, bederatzi urte lehenago bizi zen “Iraultza Laranjaren” eredua oinarritzat hartuz. Hasierako aldarrikapenak zeharo zilegiak baziren ere



"Era honetan, NATOren agendarentzat errusiar mugarekin 2.300 kilometro partekatzen dituen Ukrainaren kontrola bereganatzea berebizikoa bilakatu da."

— ustelkeria, injustizia edo oligarkiaren rola salatuz —, abendua helduta argi ikusi zen kalearen kontrola nor hasi zen bereganatzen. Halaber, Maidanek (enparantza, ukraineraz) bere burua iraultza gisa aurkezten duen arren egun, sistemaren egitura oligarkikoek ukitu gabe iraun dute gaur arte.


Hala, gabon ortodoxoak iritsita mugimenduak beherakada nabaria izan zuen, esparru hauentzat sua berpiztea berebizikoa suertatuz. Une horretatik aurrera elkarre neonaziak gakoak izan ziren, urtarilaren 22an hauek Ukraina osoko egoera ezandaraztea lortuz, neonazi lokalekin eztabaida garratza izanda Sergei Nigoyan eta Mikhail Zhyneuski protestariak bahitu, torturatu eta erail ondoren. Inflexio-puntu honek hankaz gora kokatu zuen ukrainar iritzi-publikoa, gaur demostratua izan den eran bi hilketak hauek polizia faltsuki egotziz. Harrezkero, teitatuetatik polizia zein manifestarietiro egiten zuten sniperrek ia 80 pertsona hil zituzten, hedabide natozaleek polizia erruduntzat jotzean auzia erabat deskontrolatuz. Jarrera faxistako talde paramilitarrek bidea irekiz hamaika eraikin publiko okupatu ziren, tartean Kieveko udaletxeko balkoian kolaborazionista nazien ikurrak eskegiz, edota gutxiengo etnikoen aurkako hilketak eta jipoiak bideratuz.

Horrela, Yanukovych presidentea ukrainar legedi berari muzin eginez kargugabetua izan zen, Radako parlamentuaren 2/3 erabaki honen alde izan gabe zein erreferendumean bozkatu ez zen konstituzio berria inposatuz. Orduz geroztik gertatu dena oso ondo ezagutzen dugu euskal langile ugari: estatu-kolpe hau salatzekeo altxamendu andana Kharkov, Krimea, Mariupol, Kherson edo Odessan (azken honetan maiatzaren 2ko sarraskia ez dugu sekula ahaztuko), soilik biolentoki zanpatuak ez izatea lortuz Lugansk eta Donetsk aldean.

Horrela, Ukrainar Armadaren gerra hasi zen, honen xede bakarra Donbasseko arroa osatzen duten Lugansk eta Donetsk oblast eskualdeak kontrolatzea izanez. Gerra honek gaur arte 14.500 hildako utzi ditu bertan, eta ia bi milioi errefuxiatuk Errusiara ihes egin behar izan dute. Donbassek zortzi urtez zutik nola iraun duen ulertzeko ez dago sekreturik alabaina, bertako herritarren adoreari errusiar elikagai, pentsio-ordainaketa, formakuntza militar edota arma entregatzeak batu zaizkio eta.

Halaxe, errusiar langileen estatu-kontzepzioan Donbassek duen pisu garrantzitsuaz jakitun, Errusiar Federazioak berehala Alemania eta Frantziako estatuaren ikusketa izango zuten Minskeko Itunak bultzatu zituen. Hauek Bielorrusian hamaika adituk genozidio kontsideratu duten Donbassen aurkako erasoak gelditzeko jomuga zuten, Kievek txikizioa eten zezan. Puntuaren atal nagusienak argiak ziren: Lugansk zein Donetsk autonomia gradu zabala eskainiko zien Ukraina federalaren baitan integratuko ziren, trukean miliziak armada-erregularrera batuz eta Kievek artilleria pisutsua frontetik urrunduz.

Minsk II ituna sinatzea lortu zenean, internazionalistok albisteak alaitasunez hartu genuen 2015eko otsailean, Novoróssiyako Errepublika osatu berri zuten Donbasseko



langile abertzaleek arnas hartzea lortuko zutelako. Irudikeria hutsa izan zen tamalez, Kievek ez baitzuen sinaduran hitzartu zuena bete. Ez da harritzekoa, akordioek Donbassen ukrainar legea oinarri hartuz hauteskundeak ospatzea jasotzen baitzuen, kimera hutsa zena. Izan ere, Kieveko erregimen kolpistak 2014an Donbassen aski sendoa zen eta Radan %13ko babesaren zuen Ukrainar Alderdi Komunista legeaz kanporatu zuen, sozialismoa eta sobietartasunaren alde egiten zuten antolakunde andarekin batera. Baita errusiera eskoletan irakastea debekatu ere. Zentzu honetan, Kievek Minskeko akordioak ez betetzearen zergatia modu argian barneratu behar dugun premisa sinpleagatik da: Kieveko gobernuaren politikak ultraeskuinaren gatibu dira.

Baieztapen hau ez da inolako ahoberokeria, eta jada sektore atlantistek ere onartu behar izan dute, eguneroko politikagintzan nahiz Ukrainar Armadan nabarmenegiak baitira, Stepan Bandera ikur duten sektore neonaziek postu estrategikoetan infiltratuz lobby gisa eskuratu duten pisua. Honekin batera, sarritan posizio internazionalistak ahultzeko “Ukrainako azken hauteskundeetan naziek ordezkartza urria eskuratu dutelako” ideia errepikatzen zaigu hedabide inperialistetan. Baina jaramonik egin gabe dagoeneko euren jardunean banderisten programa txertatu dutela 2014an eta 2019an hauteskundeak irabazi zituzten Poroshenko oligarkaren eta Zelenskyk sionistaren alderdiek. Ezin konta ahala adibide dira honen isla: Zelenskyk Stepan Banderari ‘Heroi Nazional’ titulua ezartzea, III. Reicharen egituren parte zen UPA ukrainarraren urriak 14 fundazio data gaur Ukrainako Egun Nazional izendatzea, SS nazietako, 14. Dibisio ukrainarrari omenaldi instituzionalak bultzatzea, iazko abenduaren 17ko NBEko bozketan Ukrainak nazismoaren goratzea gaitzestearen kontrako bozka ematea, edota Martín Aramburu euskal-argentinarrugbilariaren hiltzaileak Ukrainara bidean harrapatu izana, Kieveko erregimenak ultraeskuindarrei eskaintzen dien inpunitatea probestera zihoazenean.

Hitz gutxitan, otsailaren 24ko goizetik ukrainar erregimena biktimizatzeko Euskal Herrian jaso dugun histeria perspektibaz aztertu behar dugun afera da. Gaur testu hau irakurtzen ari zaren unean, ukrainar hirietako konbateek duela bost urteko Aleppoko askatzearen gidoia kalkatzen duten albiste faltsuen narratibarekin batera. Izan ere, azken urteotako nazioarteko legediaren urraketei erreparatuz, Putinen Errusiak — sistema kapitalista eta kontserbadorea den arren — zilegitasuna soberan du otsailaren 24an hasi zuen erantzun operazioa abiarazteko.

Donbasseko beharginentzat beranduegi heldu den erantzuna, ziur asko.

ELKARRIZKETA



Alexis Castillo, Kolonbian jaioa, Murtzian bizi zen Ukrainiako gatazka hasi zenean. 26 urte zituela, Donbasseko eskualdera joan zen borrokatzera. Gauzak horrela, urriaren 2014ko urriaren 15etik dago Donbassen. Une honetan, Donetskeko herri errepublikako soldadua da. Bere lehenengo batailak Yasinovata eta Donetskeko aireportuak izan ziren, 2014-2015 bitartean. Aipatu beharra dago Lugansken ere egon izan dela misio bat burutzen, bere gainerako borroka Donetsken garatu duelarik. Urte hauetan zehar, larriki zauritua izan da mina baten zartaldiaren ondorioz metrailagatik jota.

Elkarriketari dagokionez, aintzakotzat hartu behar da JARKI antolakunde iraultzaileak urtarilaren 20an ailegarazi zizkiola galderak Alexisi, momentu horretan ahaztuta zegoen Donbassen gatazkaren inguruan informazioa zabaltzeko asmoarekin. Hala ere, gerora errusiar armadaren interbentzioaren testuinguruan kokatu behar dugu elkarrikketa honen garapena. Hori dela eta, Alexisek, hasiera batean email bitartez idatziz jasotzea aurreikusita zeuden galderak, ahal izan duen moduan ailegarazi dizkio antolakunde iraultzaileari, bai txataren bitartez, bai audio ezberdinen bitartez. Alexis borrokalari antifaxista frontean aritzeaz gain, bere konpromiso internazionalistaren beste adierazgarri bat da Euskal Herrian

Donbassen inguruko egoera eta informazioa zabaltzeko egiten duen ahalegina. Jasotako audioetan denbora tarterik ez duen frontean diharduen edozein borrokalariren nekeaz haratago, komunista baten erabateko konpromiso militantea antzematen da aurrera daraman borrokarekiko.

1. Mendebaldeko prentsak Euromaidan bezala izendatu zuena zertan oinarritu zen eta gatazkari hasiera emateko orduan zer suposatu zuen azal diezagukezu?

Beno, nik uste dut, 8 urtetan gertatu dena eta Ukrainako gatazka hobeto ulertzeko, denboran atzera egin beharra dagoela. Horretarako, Ukrainaren beraren eraikuntza zelan eman eta gauzatu zen aztertu beharra dago. Ukraina herrialde gaztea da. Bere lur gehienak Leninen eta Stalinen iraultzaren osteko sobietar sasoian lortu izan ziren eta azkeneko lurrak, 50eko hamarkadan lortu zituen, Errusiako Errepublikak Sobietarrak Krimeako penintsula oparitu zionean. Hau ilegalki eman zela esan beharra dago. Hori dela eta, herri honen eraikuntza beste herri batzuen zatiketarik eman dela ulertu behar dugu, oso nazionalitate ezberdinetan oinarritutako eraikuntza nazionala eduki duelarik.

Sobietar Batasunaren gainbeheraren ostean, mendebaldeko hedatze inperialista ofentsibara pasa zen. Nolabait esatearren, Europako ekialdean herrialde asko NATOren eta Europar Batasunaren orbitara igarotzen hasi ziren apurka-apurka. NATOk ez zuen, Jugoslaviaren kasuan bezala, modu militarrean lortu bakarrik, izaera “biguneko” gerra eta estatu kolpeen bitartez baizik. Hortaz, egungo Ukrainaren egoera, Europar Batasunaren eta NATOren ekialderako hedapenaren inertziaaren ondorio bezala kokatu behar dugu, Errusiak egun mantentzen duen jarrera bera ez zuen testuinguru batean. Izan ere, 2014an Errusiak Yanucovich presidentea bere alde lerratzea lortu zuen. Hau hasiera batean Europar Batasunarekin negoziatzen ari bazen ere, Errusiaren orbitara jo zuen merkataritzarako eskaini zizkion baldintza ekonomiko hobeak zirela eta.

"Ukraina herrialde gaztea da. Bere lur gehienak Leninen eta Stalinen iraultzaren osteko sobietar sasoian lortu izan ziren eta azkeneko lurrak, 50eko hamarkadan lortu zituen, Errusiako Errepublikak Sobietarrak Krimeako penintsula oparitu zionean "

Orduan, Yanucovichek Europar Batasunarekin zituen intentzioei uko egin eta hurbilketa-prozesua eten zuenean hasi ziren Euromaidan deritzen protestak. Protesta horiek politikoki zein ekonomikoki Europatik hurbilago egon nahi zuten pertsonen eskutik hasi ziren, beraz. Horrelakoetan gertatzen den legez, mobilizazio hauek guztiak Mendebaldearentzat manifestazio demokratikoak ziren. Badakigu zelakoa den Mendebaldearen diskurtsoa zerbait interesatzen zaionean, super demokratiko gisa irudikatzen dute eta horixe da, hain zuzen ere, Ukrainan zein koloretako bestelako herrialdeetako koloretako iraultzekin egin zutena.

Hor hasi zen, nire ikuspuntutik, gatazka armatuari hasiera eman zion inflexio puntua. Ez egungo ukrainar eta proerrusiar aldeetatik, zenbait manifestari eta euren oldarkortasuna eta honetatik defendatzen ari zen garaiko gobernu eta estatuagatik baizik. Manifestari oldarkor horien buruan, bai Estatu Batuek, bai Europar Batasunak finantzatutako ultranazionalistak zeuden. Gatazkaren hasieran, tiro eta koktel molotoffen artean, poliziak zein manifestariak bizitza galtzen hasi ziren. Aipatu beharra dago, testuinguru horretan aurretik emandako fenomeno bat errepikatu zela. Egoerak gainezka egin zezan, alde bietako pertsona ezberdinei tiro egin ziten espezialistak edota frankotiratzailak aritu ziren eraikinen goialdeetan. Guzti honetaz hitz asko egin da eta, gainera, erabat egiaztatuta eta argitaratuta dago. Honen eraginez, estatuak egoeraren gain zuen kontrola zartarazi eta biztanleria bere aurka jarri zen.

Egoerak gainez eginda, Yanucovich presidenteak ihes egin zuen, oposizioak boterea hartu zuelarik estatu kolpea gauzatu. Orduan hasi zen, hain zuzen ere, estatu kolpe hau ematerakoan boterea hartu berri zuten politikarien barne garbiketa, estatuaren baitako lehengo gobernu elementuak purgatuz. Une horretan hartu zuten bai Donetsk, Lugansk eta bestelako eskualdeek inisiatiba eta independizatzeko erabakia, eta orduantxe hasi zen da Ukrainan egungo gatazkari hasiera eman zion operazio antiterrorista.

2. Maiatzaren 2an Odesan zer gertatu zen azal diezagukezu?


Odesan maiatzaren 2an gertatutakoa aurretik azaldutako testuinguruan kokatu beharra dago. Estatu kolpeari erantzuteko manifestazioak egon ziren leku ezberdinetan, horien artean, Odesan. Bertan tankera ezberdinetako jendea zegoen, antifaxistak barne. Kieven eman zen estatu kolpearen kontra zeuden pertsona hauek eta gertatzen ari zenaren aurka protestatzen ari ziren. Egun horretan futbol partida bat egon zen. Ez dut ondo gogoratzen zein taldek jokatzen zuen, baina garrantzitsuena da talde horien jarraitzaileen artean betidanik egon izan direla ultranazionalistak, Pravy Sector antolakunde paramilitar ultranazionalistaren parte direnak, hain zuzen ere. Jarraitzaile hauek manifestazio batean elkartu ziren maiatzaren 2 horretan, Kieveko estatu kolpearen kontra kontzentratuta zeuden pertsonak zeuden lekuaen aurka jo zutelarik. Kontzentratutako pertsona hauek euren burua inguratuta ikusterakoan, Sindikatuen Etxea bezala ezagutzen den eraikinean sartu ziren. Hau sobietar iraganeko herrialde ezberdinetan aurki dezakegun ohiko eraikina da, tamaina handiko kultur etxe bat bezalakoa da, antzoki bat azken finean...

Beno, gauza da jendea bere burua babesteko sartu zela bertan eta, une horretan, ultranazionalistek eraikina inguratu eta koktel molotoffak jaurtitzeari ekin zioten, baita eraikinaren aurka tiro egin ere. Sutan zegoen eraikinetik ihes egiten saiatu zirenak kolpeka erail zituzten. Egun inork ez daki oraindik hildakoen kopurua, ez baitzen inolako ikerketarik abiarazi. Ez da egon inolako atxiloketarik, ez erailketengatik ezta beste edozelako karguengatik ere. Baina badakigu han egondako gizon batek esan zidanaren arabera, gutxienez 80 eta 100 pertsonez ari garela. Desagertuak, erreak, tirokatuak, kolpeka erailak izan ziren 80-100 pertsona. Hori da maiatzaren 2an Odesan gertatu zena.

3. Internazionalista moduan, zerk bultzatu zintuen zure bizitza utzi eta Donetsk eta Luganskeko borroka babestera?

Donetskera joan aurretik, Espainian nengoela, ni militante komunista nintzen, ez PCEkoa baina bai beste alderdi batekoa. Honetaz gain, bestelako antolakundeen parte ere banintzen. Antolakunde sozial ezberdinetako aktibista nintzela esan liteke, horien artean, nire eskualdeko koordinadora antifaxista batekoa. Dena hasi zenean, manifestazioak hasi zirenean, gertutik jarraitu genituen hauek. Asko irakurri genuen Euromaidanen manifestazioen inguruan. Gainera, Ukrainako jendea ultranazionalistak Euromaidaneko mobilizazioen baitan indartsu egiten ari zirela esaten hasi zitzaigun. Egoeraren jarraipena burutzen genuen. Gertatzen ari zena salatzeke burutu genuen lehenengo mobilizazioa maiatzaren 2ko gertakarien harira izan zen. Kontzentrazio bat eta manifestazio informatibo bat burutu genituen egun horretako biktimen alde. Egoera horretan, zenbait pertsona, ni tarteko, Ukrainara bertaratzeaz hitz egiten ibili ginen, ahal genuen eran laguntzeko, ekainean etortzea erabaki genuelarik. Azkenean hiru izan ginen etortzea erabaki genuenak. Hegaldiaren bidaia-txartelak erosi genituen eta Bartzelonatik irtetear geundenean nik pasaportea maletan utzi nuen... Ergela ni, bai. Horrela, ni bertan geratu behar izan nintzen bitartean, beste bi kideek Kievera bidaiatu zuten. Garai horretan mugak ez zeduenetz hain zehaztuta Kievera bidaiatu eta gero, Donbassera laguntzera etortzeko aukera zenuen eta nire bi kideak miliziano moduan aritu ziren.

Ni etxera bueltatu nintzen, bidaia-txartel berria ordaindu ahal izateko lana bilatu nuen eta urrian ailegatu nintzen, 2014ko urriaren 15ean, zehazki. Eta zergatik erabaki nuen hona etortzea? Nazionalistak egiten ari zirena ikustean... Ez bakarrik maiatzaren 2an, orokorrean aurrera eramandako desagerpenen, sarraskien... ondorioz erabaki nuen etortzea. Haiei aurre egiteko, pertsona hauek ez dutelako guk zapaltzen dugun mundua zapaltzea merezi pentsatzen dudalako.



4. 2014an, gerraren hasieran, zenbait sektorek Donbasseko eskualdean gertatzen ari zena klase gatazkaren logikan gauzatzen ari zela esaten zuten. Benetan uste duzu horrela izan zela?

Egun bizi dugun egoera eta murgilduta gauden gatazka Errusiako eta Mendebaldeko eragin eremuen arteko talkaren ondoriozko testuinguru politikoa eta ekonomikoa da. Donbasseko jendearen artean zenbait sektorek, kontzienteagoak zirenak, estatu baten abiarazpena aukera onena zela zeritzoten. Hori dela eta, prozesu horretan sektore estrategiko ezberdinetako langileak, alderdi komunista eta sindikatuak hau babestera mugatu beharrean, estatu baten egituratzeari ekin

"Donbasseko jendearen artean zenbait sektorek, kontzienteagoak zirenak, estatu baten abiarazpena aukera onena zela zeritzoten. "

zioten, Donbasseko langileei erabateko boterea eman diezaiokeen proiektu zela zeritzoten eta. Zeritzotela esaten dut ni ez nintzelako estatuaren eraikuntzaren parte izan.

Tesitura horren baitan, errepublikak klase gatazkaren emaitza direla esan dezakegu. Izan ere, buruan zeukaten eta oraindik ere indarrean dagoen proiektua, errepublika hauen existentziarekin oraindik bukatu ez dena, bertako langileentzako bizi baldintza hobekak eskaintzea helburu zuen konstituzioa zen, bertoko langile klaseari aukerak eman behar ziena eta euren egoera hobetzea xedetzat zuena. Hori dela eta, zentzu horretan, Donetsk eta

Luganskeko herri errepubliken existentzia klase gatazkaren emaitza dela deritzot.

5. Zein da Donbasseko herriarren motibazioa gerra honetan borrokatzeko? Zer interes daude gerra honen atzean? Zer interes zeukan NATOk Yanucovichen aurkako kolpea babesterako orduan?

Orokorrean, errepubliken defentsara bultzatzen duten arrazoiek Donetsk eta Luganskeko lurren defentsa dute oinarri. Ukrainako gobernuak operazio antiterrorista gisa izendatutakoaren aurreko defentsa, alegia. Izan ere, kontuan eduki behar da hau bonbardaketen nahiz tankeen eskutik abiarazi zutela, eta jendeak, noski, armak hartzeko hautua egin zuen, biztanleriaren gehiengoak defentsa babestu zuelarik.

Hortaz, jende gehiena ez zen arrazoi politikoengatik mobilizatu, euren lurraren eta familien defentsarengatik baizik. Egia da gero proiektu politikoak osatzen joan zirela eta oraindik ere existitzen direla, baina jendea mobilizatu zuena, bere lurraren defentsa izan zen, azken finean.

Ukraina azpiratzeko interesak era askotakoak diren arren, ekonomikoak dira, batik bat. Ekonomikoak dira, Ukrainak europarrentzat lan indar merkea baitu, hemen soldatak ez direako Europan bezalakoak. Horrez gain, lurrak oso emankorrak dira, oso ezaguna den lur beltza daukate eta. Emankortasun horren adierazle da, Hitlerren sasoian naziek Ukraina okupatuta mantendu zutenean, lur asko eraman izana. Horretaz gain, baliabide mineral asko daude, ikatza eta horrelakoak bezalakoak. Baliabide pila dituen lurra da hau.



Beno, hori ekonomikoari dagokionez. Estrategikoki, Ukraina, NATOren egitura militarrek errusiarren ate parean kokatzen dituen herrialdea da. Kontuan hartu beharra dago, Errusiak Sobietar Batasunaren erorketarekin batera, Mendebaldearekin NATOa ez zela hedatuko adostu zuela, eta hedapen hau egoerak gainezka egitea eragin duen arrazoi nagusietako bat da.

Horrez gain, ukrainar biztanleriaren ia erdia etnia errusiarrekoa da. Egoera horretan, Ukrainak NATOrekin bat egitea pentsaezina suertatzen da Errusiarentzat, bere biztanleriaren zati bat etsaiaren eskuetan uztea suposatuko bailuke, Errusia beti erasotu nahi izan duen etsaiaren eskuetan, alegia. Argi utzi beharra dago, NATOk ez duela Ukrainako kolpe estatua babesten.

NATOk burutu zuen, Europar Batasuna eta estatubatuarrak bere alde politikoko egitura ekonomikoen babespean, estatu kolpea. Eurak dira Euremaidanen zirkulu guzti hau finantzatu zutenak. Hortaz, ez gara babesaz ari, eurek aurrera eramandako guztitik eratorritako egoeraz baizik.


6. Gatazkan parte hartzen ari diren eragile ezberdinen erradiografia egin zenezake? Zer interes dituzte?

JGatazkaren baitan zenbait bloke bereiz ditzakegu. Alde batetik, Ukraina dugu, Estatu Batuak eta bere aliatuen interesei erantzuten dien blokea. Bestetik, errusiar blokea dugu, batez ere, errusiarren subiranotasun nazionalari erantzuten diona, egoera estrategiko eta mundu eslabiarren egoerari so eginda. Izan ere, errusiarrentzat eslabiar munduaren zati bat estatubatuarren menpe egoteak bere etorkizunean eragina izan dezakeela deritzo. Ukrainar blokearen baitan hasieran

bi alde bereiz genitzake, bata, Europatik ekonomikoki gertuago zegoen zatia eta, bestea, Errusiatik gertuagoa zegoena. Azken hau zen Yanucovichen sasoian nagusitasuna zuen zatia, errusiar influentziaren laguntzaz.

Esan bezala, gatazkaren aurretik europarrekin zenbait akordio ekonomikoz gain, honen parte izateko hainbat akordio ere sinatu ziren, baina Yanucovich azkenean atzera bota eta orduantxe hasi zen Euromaidana eta estatu kolpea. Interesak orokorrean ekonomikoak dira, batez ere, energetikoak. Izan ere, konturatuz gero, Ukraina Europako zubi energetikoetako bat da. Hori dela eta, Estatu Batuei ez zaie inondik inora interesatzen Ukrainak Errusiarekin inolako harremanik edukitzea.

Bestalde, interes estrategiko militarrek ditugu, Ukraina Europar Batasunaren edota NATOren parte izanez gero, mugak zein armamentu estrategikoa errusiarren hiriburutik gertuago kokatzeko aukera egongo bailitzateke. Ukrainako blokearen baitan gainera, Europar Batasunaren gertukoak diren oligarkak ditugu, egun agintean daudenak eta azken hauek dira, gainera, gerra honi hasiera eman zioten batailoi nazionalistak finantzatzen dituztenak.



7. Norainoko babes internazionala eduki da? Zeinen partetik? Babes maila hori handitu edo txikitu egin da?

Babes internazionalari dagokionez, honen parterik handiena Europako antolakunde politiko nahiz mugimendu sozialen eskutik eta zenbait sindikaturen eskutik etorri da baina, inolaz ere, estatuen partetik. Aipatzekoa da, gainera, babes hau izaera komunistako sektoreetatik eta ezkerreko zenbait talderen babesarekin eman dela. Munduko gainerako puntuei dagokienez, ezin daiteke esan babes garrantzitsurik egon deni, baina aipatzekoak dira, Abjasia eta Osetiak emandako babesak, maila internazionallean estatu hauek onartuak ez badira ere. Horrez gain, onartu beharra dago eskuineko zenbait mugimenduk ere babesak eman dutela, baina hauek ez dute influentzia handirik lortu.

Hala ere, gatazka izozten joan zen heinean, laguntza ere gutxituz joan zen. Izan ere, jada ez geunden hedabideen erdigunean. Esan beharra dago hori nire analisi eta iritziz pertsonala dela. Ondo dakizuenetz, zerbaiten inguruan informatzen ez denean, hau ez da existitzen eta apurkako desagerpen informatiboa egon izan da bertan gertatzen denaz, jendea beste gai batzuetan zentratzen joan delarik. Horrek, naturala denez, arreta gutxitzea eragin zuen eta baita honekin jasotzen zen laguntza ere. Gaur egun, arreta hori berraktibatu egin da baina ez lehengo moduan. Nire ustez, nik uste dudana dela argitu nahi dut, hedabide informatiboak bai errusiar federazioaren, bai Donetsk eta

Luganskeko herri errepublikan aurkako

8. Zein da Poroshenkoren alde borrokatzen ari diren Pravy Sektor Svoboda bezalako taldeen ideologia?

Pravy Sektor eta azken finean nazionalista ukrainarrak Stepan Banderaren seme-alabak direla esan genezake, Bigarren Mundu Gerraren aurreko eta osteko nazionalismoa dutelarik oinarri. Nazionalismoaren ohiko elementuak partekatzen dituzte: nazioren gorazarrea, arrazaren gorazarrea, kulturarena, txobinismoa... Oro har, nazionalismo guztiak horrelakoak dira. Mugimendu hau azken aldiaren bere diskurtso politikoa neurtuz joan da, nahiz eta euren ekintzek gerra kriminalenak izaten jarraitzen duten. Baina baretu egin dira, batez ere, Europa eta

teorian demokraziaren abangoardiaren parte diren herrialdeak ez asalatzeko. Neurtutako diskurtso politikoa puntu honetan, bai Europar Batasuna, bai Estatu Batuak, instruktore militar gehiagorekin babesten ari da hauek eta horrela dago kontua. Hala ere, mugimendu hauek izaera nazionalistara mugatutako influentzia edukitzeaz gain, izaera faxistakoa ere badaukate, askotan sinbologia nazia ere baliatzen dutelarik. Beraz, ez gara mugimendu nazionalista homogeen batez ari, nahiz eta horrela izaten edo, gutxienez, homogeneotasun eta batasun hori transmititzen saiatzen diren.

9. Zelakoa da Donbass eskualdeko herri langilearen egunerokotasuna?

Donbasseko herria, Donetsk eta Luganskeko herri errepublikak aldarrikatu zirenetik, blokeo ekonomikoa jasaten ari da. Blokeo hau, azken urteetan nolabaiteko egonkortze ekonomikoa egon bada ere, sakonduz joan da krisi ekonomikoa dela medio. Errusiar federazioa gatazkan murgildu zenetik, inflazioak txarrera jo du. Azken finean, hau da gerrek eragin ohi duten ondorioetako bat. Askok pentsatzen dugu errusiar federazioa eskala handian gatazkan murgildu izanak Donbasseko eskualdean gerraren amaiera ekarriko duela baina, tamalez, gauzak patta doaz eta espero dezagun ukrainar herriak ahalik eta gutxien sufritzea gatazka honetan.

10. Gaur egun zelan dago egoera?

Fronteari dagokionez, egoera aldatu egin da otsailaren 24tik. Izan ere, data horretan, errusiar gobernuak eta herri errepubliken gobernuak, errusiar armadari Donbassen jarduteko eskubidea ematen zien defentsaren inguruko akordioa sinatu zuten. Hau errusiarren egoera geostrategikoaren jarraipen gisa uler dezakegu, hauek denbora baitzeramaten abisua ematen ez zutela onartuko NATOren egitura militarrek ekialdera hedatzerik, jada gertatzen ari zena. Hori dela eta, une honetan errusiar armada gudu-zelaian parte-hartze aktiboa izaten ari da eta errusiar aire armadaren babesak daukagu une honetan. Honi esker, Luganskeko herri errepublikari gutxi falta zaio guztiz aske izateko. Gure errepublikari oraindik ere apur bat kostatzen ari zaionalarik, ukrainar armadak frontearen mugan zeukan indar kontzentrazio handiarengatik.

Errusiar armada lau norabidetan burutzen ari da bere interbentzioa. Bata, Kieven norabidean, bigarren Krimeatik, hirugarrena Voroneseko norabidean Jarkoverantz eta, bukatzeko, Lugansk eta Donetskoko frontea. Zentzu horretan, aurrerapausoak eta errusiarren aurrerapenak egoten ari direla badirudi, eta daukagun informazioaren arabera, aurrerapen hauek garrantzitsuak izaten ari dira aurretik aipatutako norabide guztietan.

Egoera honetan, garrantzitsuenak fronteak

egonkortzea da eta, aurrerapausoei dagokienez, erritmoa berreskuratzea, errusiar soldaduek zein gureek aurrera egin dezaten, betiere, biztanleria zibila aintzakitatzat hartuta, honi ahalik eta kalte gutxien egingez.

Hori dela eta, arreta berezia eduki behar da gune urbanoei dagokienez. Zentzu honetan, etsaiek ez digu aukera askorik ematen. Izan ere, askotan zibilak zein eraikin zibilak baliatzen ditu: erietxeak, eskolak zein bizitokiak, apartamentuak. Era berean, etsaia hau era propagandistikoan baliatzen ari da. Gure soldaduak gune horietan barneratzen direnean eta aurretik

aitatutako guneetatik tiroak jasotzen dituztenean, oso zaila da gauzak beste era batera egitea. Errusiar zein herri errepublikaren armadentzako berebiziko garrantzia daukanez biztanleria zibilaria ahalik eta kalte gutxien eragitea, inteligentzia militarren bitartez, zentzu honetan ahalik eta kalterik txurienak eragiten saiatzen ari gara.

Mobilizazio bat egon da gure erreserban eta erreserbista guztiak mobilizatu dituzte. Zentzu horretan, espero dugu gatazka azkar bukatzea eta hau da azken finean ezinagon edo asaldura handiena sorrazten diguna. Izan ere, gerrak luzatzen direnean, hildako gehiago eragiteaz gain, ondorioak larriagoak izaten dira. Horregatik, esan dizudan moduan, dena azkar amaitzea espero dugu.

